

DIAGNOSTIKO ETA PROPOSAMENAK

ANTSOAINO PUNTU KRITIKOEI BURUZ

GENEROAREN IKUSPEGITIK

2024

AURKIBIDEA

1 SARRERA
4. OR.

2 ALDE TEORIKOA
6. OR.

3 PROZESUAREN
HELBURUAK ETA EGITURA
8. OR.

4 FAKTOREAK EMAKUMEEN
SEGURTASUNAREN ETA
BELDURRAREN INGURUAN
12. OR.

5 PUNTU KRITIKOAK ETA
PROPOSAMENAK
16. OR.

6 IKUSITAKO ARAZOAK ETA
JARDUERA-ILDOAK
25. OR.

7 ONDORIOAK
28. OR.

1

SARRERA

Genero-sistemek biziki baldintzatzen dute espazio publikoaren erabilera, eta eremu horretan egituratzen dira botere banaketa desberdina sortzen eta iraunarazten duten jokoera sozialak eta gizartearen irudi sinbolikoak. Pertsona sozializatuok eremu publikoan emakume gisa pairatzen ditugun beldurra eta segurtasun falta, toki eta une zehatz batzuetan bereziki, sozializazio diferentzialaren ondorioa dira neurri handi batean, eta kontrol sistema bat bezala funtzionatzen dute egitura patriarkalari eusteko eta egoera hori berean mantentzeko. Aitzitik, espazioa eta denbora ere esperientzia hori bizitzeko moduan eragiten duten faktoreak dira. Izan ere, hiritik askatasunez mugitzeko eta libre bizitzeko eskubidea bermatu nahi badugu, ezinbestekoa da detektatzea zein diren eremu publikoaren parte izan eta sentitzea mugatzen diguten elementuak. Modu horretaz, emakumeek duten eremu publikoa erabiltzeko eskubidea, libreki eta mugarik gabe mugitzeko eskubidea eta beren hiriaz edo herriaz gozatzeko eskubidea bermatuko dituzten ekimenak eta aldaketak abiatu ahalko ditugu.

Bide horretatik, diagnostiko honek helburutzat hartzen ditu identifikatu eta definitzea zein diren Antsoainen emakumeei bizitza soziala garatzeko segurtasun falta sorrarazten dieten espazioak, elementuak eta faktoreak —bai toki fisiko urbanoak, nola uneak eta denborak, zein bere erabileraren arabera—. Aldi berean, proposamen zehatzak eta orokorrak egin dira, emakumeentzako herri seguru eta amultsua erdiesteko bidean aurrera egiteko. Halaber, mugimendu feministarekin eta politikoarekin lotutako beste agenteek aspalditik salatzen duten errealitate injustu eta baztertzaille hori argiago ikusarazi nahi izan da.

2

ESPARRU TEORIKOA

2.1. HURBILKETA BAT EMAKUME ETA SEGURTASUNAREN ESPERIENTZIARA HIRIKO GUNEAN

Hiriko Emakumearen Europako Gutunak hiri-guneetan beste filosofia bat ezartzeko beharra aurkezten du, eta bere helburuetako bat bezala aipatzen du “oraindik ere, emakumeari hirirako eskubideez erabat gozatzea eragozten dioten oztopoak ezabatzea”¹. Eremu publiko eta pribatua zatitzeko dikotomia, eta gizonezkoei eta emakumezkoei, hurrenez hurren, banatzeko sozio-historiak inplikazio argiak ditu hiria errealitate publikoaren espazio gisa aurkeztean. Hirigintza lantzen duten ikerketa feministek ondorioztatzen dute hiriak logika androzentriko batez osatu direla planifikatu direnean; horren arabera, gizonezkoa subjektu unibertsal gisa nagusitzen da, bera da eremu publikoaren erabiltzaile nagusia eta protagonista. Horregatik, ikuspegi feministatik, hirigunearen eta hiritartasunaren neutralitate faltsua salatzen da.

Hiria genero ikuspegitik birpentsatzeak aldatze-prozesu bat eskatzen du hiritarren parte-hartzeari, espazioen diseinu eta banaketari, garraio eta mugikortasunari, irisgarritasunari, zerbitzuei, hornikuntzari, jasangarritasunari eta segurtasunari dagokienez. Aldiz, hiri-gunea planifikatzeko eta eraikitzeke tenorean, desberdintasun eta bazterketa dinamika estruktural berberak errepikatzen dira², elkarte anitzen beharrak, eskakizunak eta nahiak behar bezala ez artatzeagatik.

Emakumeen segurtasunaren eta mugikortasun askearen bizipenari dagokionez, hiri diseinuaren ezaugarriek erabat baldintzatuak daudela seinlatu behar da. Hirian esperientzia libre eragozten duten diseinuko ezaugarriak identifikatzea garrantzi handikoa da. Bide horretan, hainbat ikerketa garatu dira, “Hiri Debekatuaren Mapa” izena jaso dutenak, non hiri-guneetan emakumeek dauzkaten segurtasun esperientziak biltzen diren³.

Aipatutako txostenek emakumeari segurtasun falta sorrarazten dioten eta esku hartu nahi diren espazioei begiratzen diete. Azken urteotan begiratzeko modu hau zabaltzen ari da, eta Iruñeko emakume urbanoak taldeak egindako “Hiri debekatu–Hiri amultsua”⁴ bezalako txostenetan aipatzen da esku hartze urbanistikoa ez dela faktore bakarra, tokian eta tokiak sentitzeko moduan eragiten duena; aldiz, garrantzitsua ere badela espazio eta baliabide horien erabilera. Horren harira, “segurtasuna ez da ulertu behar konfliktorik gabeko egoera bat bezala; kontua ez da espazio esterilizatuak egotea, baizik eta espazioa beldurrik gabe erabiltzea. Pertsona desberdinen arteko elkarbizitzarako itun bat da, hiritar guztien askatasuna eta autonomia, oro har, eta emakumeena, bereziki, babesteko” (Urbanas. 2012:3)

¹ Burutu gabeko erronkak seinlatu nahi dira, hiri ekitatibo eta demokratikoak erdiesteko: http://www.ugr.es/~revpaz/documentacion/rpc_n5_2012_doc2.pdf

² Del Valle, 2005; Falú (2009); Innerarity & Sancho Martinez (2015); Zamacona & Azkarate(2012)

³ Ikerketa horiei buruzko erreferentziak Sanchez de Madariagan, (2005).

⁴

http://www.diariodenavarra.es/noticias/navarra/pamplona_comarca/pamplona/2014/04/22/un_mapa_pa_mplona_prohibida_amable_disenado_por_mujeres_155963_1702.html

2.2 BELDURRAREN ALDE BIKOITZA GENERO EGITUREI DAGOKIENEZ

Emakumeek eremu publikoan bizi ditugun beldurra eta segurtasun falta, mendekotasun patriarkaleko mekanismo bat izan da, emakumeak eremu pribatura baztertzeko. Beldur hori irakatsi eta transmititzen da generoa sozializatzeko prozesuaren bidez, eta alde bikoitza du: beldur objektiboari dagokiona, eta irudi sozialei dagokiena. Teresa del Valle argi azaltzen du, emakumeen mugikortasunaz mintzatzeak, “beldur errearen bizikizunetara eta, halaber, beldurraren irudietara eramaten gaituela” (Del Valle, 2010: 250). Gehienetan, irudiez elikatzen den beldurra edo segurtasun faltak, kalera eramaten gaitu, toki bakartuetara eta ikusmen gutxiko egoeretara. Hau da, espazioarekiko erlazioa beldurra baldintzatuta, esku-hartuta eta mugatuta aurkitzen da. Horregatik, emakume askok mapa berezi bat dute non uko egiten zaien toki batzuei, eta beste batzuk, eguneroko bizimoduan egon arren, beldurra baldintzatuak dauden. Aldi berean, eraso anitzen esperientziak eta generoen arteko botere-erlazioen errealitateak, modu dialektiko batez eragiten diote elkarri, eta horrek segurtasun faltaren emaitza handitzen du. Ildo beretik, emakumeok beldurra hartzen dugu aurre egin behar diegun beste indarkeria matxista bat gehiago bezala.

Bi paradoxen aurrean gaude hemen: horietako bat emakumeek ez dutela jasotzen biolentziarekiko beldurra pentsaraziko lukeen bezainbesteko eraso; eta bestea, indarkeriaren tokia oker kokatzen dutela dela, zeren eta emakumeen kontrako erasoak eremu pribatuan edo etxean egiten baitira gehien; eta gainera, lehenago hartu-eman sozialetan egon diren lagunen aldetik (Pain, 2001 in Rodó-de-Zárte y Estivill i Castany, 2016:18).

Esandakoari begira, garrantzikotzat hartzen dugu definitzea zein ikuspegitik abiatu garen puntu kritikoei buruzko diagnostiko egitean, gizarte bizitzak irauten duen genero espazio anitzetan ematen diren pertzepzioek eta esperientziek baldintzatuak baitaude. Dena den, gure ustez, arriskuaren, segurtasun faltaren edo beldurraren bizipena ez da mugatzen hiriko baliabideen faltari; genero egituren barreneko sozializazio prozesuak eta bertan sortzen eta irauten duten botere-erlazioek ere baldintzatuak dutela. Alegia, segurtasun-mailaren faktore adierazleek ezaugarri fisikoen harago doa, eta harremanen eremuan kokatzen da. Beraz, puntu kritikoei buruzko ideia zabal batetik abiatzen gara, non ekimen motak, ordutegiek, pertsonak eta haien jokaerak, edo gizarte-esperientziek eta abarrek eragin dezaketen norbanakoaren eta taldearen esperientzian, eta diferenteak izan daitezke, toki berean kokatu arren.

Era berean, uste dugu emakumeen eremu publikoko bizipen askea eragiteko prebentzio-ekimenak behar direla, eta aldaketak burutu behar direla hiriaren diseinu eta planifikazioan. Horrekin batera, uste dugu hartu beharreko neurri horiek lagunduak eta artikulatuak egon behar direla, eta eraldaketa sozialerako marko zabalagoetan kokatu, prozesu, jarduera eta estrategia feministen aktibazioa eta garapenaren bidez.

Colletiu Punt 6-eko Hirigintza feministako adituek diotenez: “Hiriaren segurtasuna genero ikuspegitik aztertzen hasteko, indarkeria matxista eta gizon eta emakumeek duten segurtasunaren faltaren pertzepzio diferentea onartu behar da, eta patriarkatu-sistemaren ondorioa direlako, eta horri estuki lotuak daudelako. Egoera hobetzeko, lan sakona egin behar da gizarte aldatzeko eta ekitatiboagoa egiteko” (Collectiu Punt 6, 2017:16).

3

PROZESUAREN HELBURUAK ETA EGITURA

3.1. HELBURUAK

HELBURU OROKORRA

Antsoaingo Puntu Kritikoak Identifikatu –lekuari dagozkienak eta sozialak–, eta **proposamenak egin** emakumeek eta indarkeria patriarkalaren jomugako beste identitateen joan-etorri askea eta esparru publikoaren erabilera gustagarria bultzatzeko.

HELBURU ESPEZIFIKOAK

- » **Gogoeta egin sexu-eraso eta beldurraren sozializazioari buruz**, eta ikusarazi emakumeok hirian bizi dugun berezko errealitatea.
- » **Segurtasun falta/segurtasuna dikotomiaren ezaugarriak, agertzen diren tokiak eta uneak zehaztuz**. Espazio-ikuspegi bat eskuratu –geografikoa eta soziala– atzemandako puntu kritiko horiekiko.
 - » **Ekimen kolektiboko proposamen auto-antolatuak edo instituzionalak artikulatu**, epe motz, ertain eta luzean.
- » **Ahalduntzeko prozesuak bultzatu** emakume parte-hartzaileen artean (kontzientziazioa eta gorputz ikuspegia integratuz), errealitate horri aurre egiteko tresnak osatzeko.
- » **Eragile eta elkarte feministak erakarri**, emakumeak inplikatzeko lan honetatik aterako diren proposamenak abian jartzera.

3.2. ERAGILE PARTE-HARTZAILEAK

TALDE TEKNIKOA: EMAGIN ELKARTEA

Emagin Elkarteak 15 urte baino gehiagoko ibilbidea egin du, besteak beste, indarkeria matxistaren arazoarekin lanean. Heziketa, ikerketa eta artxibo lanez gain, argitarapen batzuk ere atera ditu. Gaur egun, psikologo, soziologo eta parte-hartzeko jardueren adituak ari dira Emagin Taldean lanean; eta horiek guztiek genero ikasketak egin dituzte. Epistemologia feministak dakarren ezagutzatik abiatuak, aldaketa sozialerako konpromisoa hartzen dugu ikerketa-prozesuan.

Emaginek egindako funtzioak izan dira prozesua diseinatzea eta betetzea. Horretarako, ezinbestekoa izan da komunikazio bide iraunkor bat udal teknikariek.

ANTSOAINGO UDALA

Antsoaingo Udaleko Berdintasun Arloak bultzatu du prozesu hau, eta bertan udal ordezkari eta teknikariek parte hartu dute. Alkatearen inplikazioa, saio guztietan, azpimarratu nahi dugu. Alderdi hori guztiz garrantzizkoa da; izan ere, erakunde publikoen konpromisoak aurrera eramateko ezinbestekoak dira aurreko prozesuarekiko iraupena eta inplikazioa.

PARTE-HARTZAILEAK

Udalak deialdi bat egin du Antsoaingo neska eta emakume orori prozesuan parte hartzera gonbidatzeko, halaber, dei bereziak egin zaizkie lehenagotik existitzen ziren erakundeei. Hala ere, egiaztatu behar dugu parte-hartze mugatua egon dela, eta ez dela egon mugimendu feministako pertsonen parte-hartzerik, gaur egun ez dagoelako antolatua eta indarrean.

Hala ere, prozesua aurrera eraman ahal izan dugu, adin desberdinetako emakumeen esperientziak bilduz (20-55 urte artekoak). Horietako batzuk betidanik bizi dira Antsoainen, eta beste batzuk beranduago etorri dira. Berrienak bi urte eman ditu hemen bizitzen. Saio batean emakume ginear batek parte hartu zuen; saio horretan parte-hartzaile gazte batek, ingelesa zekienak, bat-bateko itzulpena egin zion Komunikazioa errazteko.

3.3. PROZESUA

Prozesuaren oinarria, Emagin taldeak dinamizatu dituen 3 saioz osatu da




4

EMAKUMEEN SEGURTASUNARI ETA BELDURRARI BURUZKO FAKTOREAK

Lehen saioan zehar, diagnostikoaren egitura azaltzeaz gain, proposatutako marko teorikoaren edukiari buruzko eztabaidarako tarte bat ireki zen, diagnostikoari eragiten dioten arazo nabarmenak testuinguruan kokatzeko eta, horrela, ikuspegi zabal batetik lan egiteko.

Dinamika ezagutzaren ekoizpen konpartituan eta ezagutza partekatuaren irizpideetan oinarritu zen, non eduki teorikoak taldekideen aurretiazko ezagutzatik sortzen baitira. Semaforoaren dinamika erabiliz, baieztapen batzuk bota ziren parte-hartzaile bakoitzaren aldeko edo kontrako iritzia jasotzeko, eta iritzi bakoitzaren arrazoiak partekatu ziren.



Eztabaidaren dinamika egin ondoren, emakumeen segurtasun faltaren eta beldurraren dimentsio bikoitza marko batean kokatuko dugu: Insegurutzat hartzen diren guneak genero sozializaziotik bereiztuak, eta biktimizatze arrisku handiagoa duten guneak ere seinalatuz.

Horretarako interesgarri izan ohi da galdera hauek egitea:

Zer espazio/une saihesten ditugu, ematen digute beldurra, edo insegurutzat hartzen ditugu?

Zein espazio/uneetan sentitu gara erasotuak, jazarriak?

Bat egiten dute?

Gehienetan lehen erantzuneko galderak eta bigarrenenak ez datoz bat. Segurtasun falta eta emakumeen sozializazio bereiztuaren ondoriozko beldurra iruditegi zehatz batekin lotzen da (kale bakartua, gaua eta lagun ezezaguna); baina hori beti ez dator bat eraso matxistak gertatzen diren testuinguru soziala eta espazialarekin (besteak beste, etxea, lagun ezagunak, kalek, plazak edo tabernak egunez).

Parte-hartzaileen artean, batzuek espazio publikoan erasotuak edo jazarriak izan direla aitortzen dute, horregatik gogoia dute proiektu honetan parte hartzeko. Hala ere, ados daude baieztatzean eraso gehienak pertsona ezagunek egiten dutela (batek dio bere bikote ohiak genero-indarkeria erabili duela haren kontra), eta indarkeria instituzionala nabarmentzen dute bereziki.


Horrekin bat, hiriko segurtasunari buruzko diagnostikoa genero ikuspegitik osatzeko, ezinbestekoa da segurtasun-falta/segurtasuna bikoiztasunaren bi dimentsioak kontuan hartzen; hasieran insegurutzat jotzen ez diren espazioak, horrela bihur daitezke bertan garatzen den testuinguru sozialaren arabera. Modu horretaz, garatutako dinamikaren arabera, segurtasuna/segurtasun falta ulertzeko modu zabal batez abiatuko gara, identifikatu beharreko Toki Kritikoaren bi dimentsioak nabarmenduz:

Tokia: Espazioaren dimentsioari dagokio eta hiri-diseinuaren ezaugarriek definitzen dute.

Unea: Testuinguru sozialaren dimentsioari dagokio. Espazioaren erabilerak definitzen ditu.


Horregatik, lehen saioan espazio eta une diferenteetan segurtasun/segurtasun falta bikoiztasunarekin lotutako esperientzien ezaugarriak identifikatu ziren, positiboki eta negatiboki. Emaiza izan da bereizi direla, modu orokor batez, espazio arriskuaren pertzepzioan eragiten duten faktore nagusiak. Hori azterketarako tresna bat da, eta adierazle-multzo bat osatzeko aukera eskaintzen du, espazio eta testuinguruaren tipologia eraiki ahal izateko. Honako hauek dira parte-hartzaileek izendatu zituzten adierazleak.

ESPAZIOAREN ETA HIRIKO DISEINUAREN PLANIFIKAZIOA ETA EZAUGARRI FISIKOAK



Adibide negatiboak:
etxabeak, parkinak, garajeak, industria-guneak...

TOKIAREN ERABILERARI LOTUTAKO EZAUGARRIAK: UNEAK, TESTUINGURUA, HARREMAN SOZIALAK...



5

PUNTU KRITIKOAK ETA PROPOSAMENAK

Segurtasun/Segurtasun-gabezia auziaren pertzepzio eta bizipenari eragiten dioten faktore nagusiei buruzko emaitzak behin konpartitu ondoren, espazioei eta uneei dagozkien puntu kritikoak identifikatu ziren, aldatzeko proposamenak barne.

5.1. EZAUGARRI FISIKO EDO ESPAZIALEN ARABERA

1

JOSE M^a JIMENO JURIO KALEA



ANTZEMANDAKO ARAZOAK


- Argitasun gutxiko kalea, ibilbide luzea dago autobus geltokia eta kaleko beste atarien artean.
- **Autoak** erasotzaileak ikusiak izan gabe atera daitezkeen tokietan aparkatuak.

ESKU HARTZEKO PROPOSAMENAK

- Argitasuna hobetzea (ordutegi batean bederen)
- Hiriko autobusa (gauetz bereziki) sar dadila barneago Antsoainen.

2

JOSE M^a JIMENO JURIOko Portxeak,
MENDIKALE,
HARROBIETAKO K. ETA
ATZEALDEA



ANTZEMANDAKO ARAZOAK

- Arkupe, garaje-sarrera, bazter... asko daude. Eta gazteak hor geratzen dira edan, erre, zirri egin, pixa egin...
- Ataritik ateratzean ez da ongi ikusten.
- Jose M^a Jimeno Jurio kalea, 11, 13 eta 17 zenbakietako atariak: atea puskatu diete bi aldiz. Komunitateko auzokideek portxeetako argiteria kendu nahi zuten aurrezteko, baina proposamenak ez zuen aurrera egin.

ESKU HARTZEKO PROPOSAMENAK

- Auzokideen komunitate horiei txosten honen iradokizunak helarazi:
- Argitasun gehiago*
- Ispiluak paratu
- Kartelak gazteei zuzenduak tokia errespetatzen

**Auzokide batek zera esan digu: foko berri bat paratu dutela garajeko irteeran, berak eskatua, eta aldaketa handia nabari du.*



3

PARKIN HARROBIETAKO K. ETA
GAZTETXEAREN AURREALDEA

ANTZEMANDAKO ARAZOAK


- Toki hutsak eta jenderik gabeak, gauzez bereziki.
- Autoen artean edo auto barrenean ezkutatze aukera handiak.
- Etxegabetuak, autoetan edo autokarabanan lo egiten.
- Zikinkeria. Gazteak janari azkarra jateko eta edateko han geratzen dira, baina gero ez dute biltzen

ESKU HARTZEKO PROPOSAMENAK

- Indarrean dauden hirigintza-arauei jarrikiz, gunea egokitu parkin huts bat izan ez dadin, pertsonen eta autoen presentzia orekatuz, espazioa partekatuz, gunek autoentzako bakarrik edo pertsonentzako bakarrik izan ez daitezten. Gune hori abegiko egin behar da pertsonentzat ere bai.

4

GAZTEEN ETXEA



ANTZEMANDAKO ARAZOAK

- Argiteria txarra, **argitasun gutxi**.

ESKU HARTZEKO PROPOSAMENAK

- Argitasun gehiago

5

INDUSTRIA-GUNEA ETA HASIERAKO PARKINA

ANTZEMANDAKO ARAZOAK

- Jende gutxi kaletik ibiltzen, ez dago komertziorik.
- Gaez autoak ibiltzen ikusteak mesfidantza sorrarazten du.
- Pertsonak autoetan edo autokarabanetan lo egiten. Gizon bat autoan bizi da, eta etxerik gabeko pertsona batzuk parkinean sartzen dira gaua autoetan edo autokarabanetan igarotzeko.

ESKU HARTZEKO PROPOSAMENAK

- Indarrean dauden Hirigintza-arauei jarraikiz, gunea birmoldatu parkin hutsa izan ez dadin, pertsonen eta autoen presentzia orekatuz, espazioa partekatuz, gunek autoentzako bakarrik edo pertsonentzako bakarrik izan ez daitezzen. Gune hori abegiko egin behar da pertsonentzat ere bai.

6

KALE ESTUAK: FUEROAK ETA LERIN

ANTZEMANDAKO ARAZOAK


- Estuak dira.
- Ez dago irteerarik, edo irteera bakarra dago.

ESKU HARTZEKO PROPOSAMENAK

- Kameran presentziaz oharrarazteko afixak.

7

ZEBRABIDEA EZKABA K. BIRIBILGUNEAREN ONDOAN



ANTZEMANDAKO ARAZOAK

- Argitasun gutxi gauez, **zuhaitz batzuek bertako kale-argia** estaltzen dutelako.
- **Istripu arriskua** ikusterik ez dagoelako, 20 km/ordua ibiltzeko araua egon arren.

ESKU HARTZEKO PROPOSAMENAK

- Zuhaitz batzuk inausteko aukera edo gunea hobeki argiztatzea, (kale-argi baxuago batez, esaterako) baloratzea

8

PIXA-CAN MENDIKALE eta HARROBIETAKO KALE ARTEKOAN

ANTZEMANDAKO ARAZOAK

- **Argitasun gutxi**, gauez ez da ezer ikusten.
- **Zikinkeria**, jendeak ez ditu txakur-gorotzak, botila hautsiak eta latak biltzen.

ESKU HARTZEKO PROPOSAMENAK

- Kale-argi gehiago paratzea baloratu, beste pixa-can-ean bezala.
- Afixa pedagogikoak jendeak gunea garbi utz dezan, eta txakur-gorotzak bil ditzan.

9

ERRONDAKO PASEALEKUA GAUEZ

ANTZEMANDAKO ARAZOAK

- Gauez **argitasun gutxi** dago. Gauez, jasangarritasun irizpideagatik, txandaka pizten dira. Baten batek huts egiten badu, ez dago ibiltzerik. Barraskiloaren ingurua aipatzen da bereziki.
- Gauez, **jenderik gabe**.
- Ondoan heskairen bat badago, segurtasun falta handiagoa.

ESKU HARTZEKO PROPOSAMENAK

- Argitasun ona bermatzea beti.
- Herritarrei eskatzea Udalari deitzeko konponketa baten beharra ikusitakoan. Horretarako, herritarrei esan behar zaie badagoela iradokizunak emateko atal bat udal webgunean, edo udaltzainei dei diezaiketeela.

5.2. EZAUGARRI ERLAZIONAL EDO TESTUINGURUAGATIK

TESTUINGURUKO
Puntu kritikoak

EZKABAKO BIDE TXIKIAK

» Mugagabetasuna, zerbait gertatuz gero, **ez jakin nora ihes egin.**

» Mendira bakarrik joateak segurtasun falta dakar.

» Mendira joateko emakume taldeak bultzatu.

» Ahalduntze eta autodefentsa feminista tailerrak.

» Kokapena ezagutzeko aplikazioak mugikorrean.

ANTZEMANDAKO
ARAZOAK

ESKU HARTZEKO
PROPOSAMENAK

GIZON BAKARTIAK

» Gaez gizon bakarti bat ikusteak beldurra eta segurtasun falta sorrarazten ditu, bereziki lehen aipatu diren kale eta esparruetan.

» Maskulinitateko tailerrak.

» Ahalduntze eta autodefentsa feminista tailerrak.

» Kokapena ezagutzeko aplikazioak mugikorrean.

KUTXAZAINA LAPURBIDE K. (Rural Kutxa) GAUEZ

» **Etxerik gabeko pertsonak egon ohi dira lo egiten**, eta, sekula ezer ez egin arren, segurtasun falta sorrarazten dute*.

» **Kanpoko kutxazainak ez du ispilurik** norbait atzetik datorren ikusteko, beste kutxazainak duen bezala.

» Ispilua jartzeko esan.

**azaltzen da udaltzainak joan ohi direla Zerbitzu Sozialen baliabideez informatzera. Ez badute joan nahi, banketxetik aterarazten zaie, bertan lo egiterik ez izateko.*

ANTZEMAN DIREN ARAZOAK

ESKU HARTZEKO PROPOSAMENAK

IKASTETXEKO PATIOA

» Toki segurua izan ohi den arren, batzuetan festa ekitaldiak egiteko erabiltzen da. Behin, **kontzertu batean, jokaera desegoki eta bortitzak egon ziren eta DJa lur jota bukatu zen. Protokoloa piztu eta kontzertua gelditu zen***

» Protokoloa zabaldu gune publikoetako ekitaldi eta festa mota guztietara.

» Protokoloa sozializatu afixez eta beste euskarri motaren bidez haren berri zabaltzeko.

» Puntu moreak apailatzea.

**Orduz geroztik neurriak hartu ziren, besteak beste bi DJ-saioen artean geldialdi bat egin edo Udaltzaingoari kasu berezia egiteko eskatu.*

JAIK ETA FESTA GIROAK

» **Alkohol eta droga kontsumoa handiagoa egon ohi da.**

» Esaterako: **Lapurbide plazako tabernak**. Plaza lasaia da, baina festetan DJak eta jokabide matxistak errazten dituzten ekitaldiak egiten dira.

» Tabernekin aldeztu aurretik lantzeko protokolo bat dago.

» Protokoloa zabaldu gune publikoetako ekitaldi eta festa mota guztietara.

» Protokoloa sozializatu afixez eta beste euskarri motaren bidez haren berri zabaltzeko.

» Puntu moreak apailatzea.

TABERNA BATZUK

» **Norberaren profilaren eta jarreraren arabera**. Zikinkeria eta utzikeria itxurako pertsonak aipatzen dira; horiek segurtasun falta sorrarazten dute.

» Halaber, jokabide maskulinizatu edo hipermuskulatuek begiradaz ikaratzen dute. Zerbait esatea emakumea izan eta ondotik pasatzean.

» Kanpainak egin tabernak eta bertako langileak kontzientziazteko, haien ardura ere badela, beren tabernetako eraso matxisten aurrean zerbait egitea.

» Edalontzietarako estalkiak.

» Maskulinatea eta ahalduntzea lantzeko tailerrak.

ANTSOAINGO PUNTU KRITIKOEN MAPA

EZAUGARRI FISIKO EDO ESPAZIALEN ARABERA


- 1 Jose M^a Jimeno Jurio Kalea
- 2 Portxeak Jose M^a Jimeno Jurio, Mendikale, Harrobietako kalea eta atzealdea
- 3 Harrobietako kaleko parkina, Gaztetzearen aurrean.
- 4 Gaztetzea
- 5 Industria gunea eta hasierako parkina
- 6 Kale estuak: Foruak eta Lerin kaleak
- 7 Ezkaba kaleko zebrabidea, biribilgunearen ondoan.
- 8 Pixa-can Mendikale eta Harrobietako kalearen artean
- 9 Errondako pasealekua gauez

EZAUGARRI ERLAZIONAL EDO TESTUINGURUAREN ARABERA

- 10 Ezkabako bide txikiak
- 11 Eskolako patioa
- 12 Lapurbideko banketxea gauez (Rural Kutxa)
- 13 Lapurbide plaza

10 / Bulevar	948148983	1 / Mendiako eskola / Eskola de Mendiak	948382609
11 / Bulebar / Bulebar	948142352	2 / Akademiako Eskola Zerbitzuak	948132222
12 / Bulebar / Bulebar	948140782	3 / Osasunerako Zerbitzuak	948132207
13 / Bulebar / Bulebar	948136111	4 / Antsoain / Antsoain	948363299
14 / Bulebar / Bulebar	948140782	5 / Zerbitzuak Zerbitzuak	948384048
15 / Bulebar / Bulebar	948122788	6 / Zerbitzuak Zerbitzuak	948133410
16 / Bulebar / Bulebar	948148248	7 / Zerbitzuak Zerbitzuak	948384048
17 / Bulebar / Bulebar	948146524	8 / Zerbitzuak Zerbitzuak	948168700
18 / Bulebar / Bulebar	948140782	9 / Zerbitzuak Zerbitzuak	112
19 / Bulebar / Bulebar	948132288	10 / Zerbitzuak Zerbitzuak	948292496
20 / Bulebar / Bulebar	948382242	11 / Zerbitzuak Zerbitzuak	848422222
21 / Bulebar / Bulebar	948143228	12 / Zerbitzuak Zerbitzuak	848422222
22 / Bulebar / Bulebar	948144907	13 / Zerbitzuak Zerbitzuak	948130202

WEB: www.ansoain.euzkadi.es
 e-mail: ansoain@ansoain.euzkadi.es



Ikurraren esanahia - Simbologia

Etxeak / Buzonak	Merkataritza (diruzenak)	Sotoak
Abeltzak / Buztinak	Komertzial eskaintza	Parkinak
Abeltzak / Buztinak	Merkataritza (diruzenak)	Mendiak
Bulebarak	Komertzial diruzenak	Mendiak
Bulebarak	Merkataritza (diruzenak)	Mendiak
Etxeak / Edificazioak	Merkataritza (diruzenak)	Mendiak
Eskola / Eskola	Komertzial diruzenak	Mendiak
Eskola / Eskola	Merkataritza (diruzenak)	Mendiak
Eskola / Eskola	Komertzial diruzenak	Mendiak
Eskola / Eskola	Merkataritza (diruzenak)	Mendiak
Eskola / Eskola	Komertzial diruzenak	Mendiak
Eskola / Eskola	Merkataritza (diruzenak)	Mendiak
Eskola / Eskola	Komertzial diruzenak	Mendiak
Eskola / Eskola	Merkataritza (diruzenak)	Mendiak
Eskola / Eskola	Komertzial diruzenak	Mendiak
Eskola / Eskola	Merkataritza (diruzenak)	Mendiak
Eskola / Eskola	Komertzial diruzenak	Mendiak
Eskola / Eskola	Merkataritza (diruzenak)	Mendiak
Eskola / Eskola	Komertzial diruzenak	Mendiak
Eskola / Eskola	Merkataritza (diruzenak)	Mendiak
Eskola / Eskola	Komertzial diruzenak	Mendiak
Eskola / Eskola	Merkataritza (diruzenak)	Mendiak

6

ATZEMANDAKO GAI OROKORRAK ETA EKINTZA-ILDOAK

6.1. ARGITASUN ARAZOA

Gero eta premia handiagoa dago politika publikoek genero-berdintasuneko eta jasangarritasuneko irizpideak zeharka integratzeko. Argiztapena funtsezko gakoa da gune bat segurutzat hartzeko. Hala ere, ingurumen-ikuspegia ez dela galdu behar nabarmendu da, kutsatzeko joera bazter utzita. Beraz, oreka bilatu behar da espazioak argiztatzeko beharraren eta horrek dakartzan ondorio txarren eta energia-gastu handiaren artean.

Horretarako, trafikora zuzendutako argitze-sistemak murriztera eta argia oinezkoentzako guneetara hurbiltzera jotzen da. Halaber, bide edo etorbide argitsuagoak sortzeko aukera azaldu da, gehienbat emakumeei gaez igarotzeko bideak errazteko. Dirudienez, epe motzean Antsoaingo argiteria osoa aldatzeko eta led sistemara pasatzeko asmoa dago, kontsumo maila egokietara iristeko. Aukera ona dirudi kale-argiak aztertu eta diagnostiko honetan agertu diren beharrak kontuan hartzeko.

6.2. ERAIKINEN ITXURA

Prozesuan zehar eraikin ilun eta zaharrek sortzen duten segurtasun falta aipatu da, positibotzat hartu dira azken bolada honetan egiten ari diren inguratzaileak eraikinak isolatzeko, kolore argiez egin ohi baitira.

Normalean erreforma horiek komunitateen esku daude. Orain arte, Nafarroako Gobernuak dirulaguntzak eman ditu eraikin zaharren erreforma errazteko.

6.3. ETXEBIZITZA ETA POBREZIAREN ARAZOA

Gero eta ohikoagoa da ikustea etxebizitzarako eskubidea pribilegio bihurtzen ari dela. Pertsona askok ezin dute, edo zailtasun handiak dituzte etxebizitza eskuratzeko, gehienbat klase baxu/ertaineko sektoreetan. Denon eskubidea izan behar lukeena, urrun dago izatetik gaur egun, eta horrek bazterketa soziala areagutzen du.

Lan honetan antzeman diren arazo eta puntu kritiko batzuk lotuta daude etxebizitzarik gabeko pertsonekin, Antsoaingo autoetan, autokarabanetan, parkin batzuetan, edo banketxeetan lo egiten dutenekin.

Pobrezia, baliabiderik gabeko eta itxura zarpaileko lagunak beldurrari eta segurtasun-ezari lotzen zaizkie, nahiz eta pertsona horien eta jokaera desegoki edo erasotzaileen arteko loturarik ez egon (esaterako, kutzazainean lo egiten duenak beldurra ematen diola dioen pertsona berak onartzen du, hark inoiz ez duela mehatxu-jokaera bat erakutsi).

Edonola ere, emakumeen artean arazo honekiko segurtasuna handitu nahi bada, ekintzak bideratu beharko dira etxebizitza-politikak hobetzera eta pobrezia aurre egiteko neurriak hartzera. Halaber, kalean lo egiten duten pertsonak arriskutsuak direla azaltzen duen iruditegia deseraikitzera ere jo genezake, ez baita horrela.

6.4. GAUEKO GARRAIO PUBLIKOA

Gauetz, autobus-geltokiaren eta etxearen arteko ibilbidea kezkarako motiboa da emakumeen artean. Antsoaingo prozesuan ere gai hau atera da, arazoa N7 lineari dagokio bereziki, geltokiak urrun daudelako. 3 lineak ez du ezinegonik sortzen, Antsoaingo erdigunetik igarotzen baita. Udalak Mankomunitatearekin hitz egin zuen N7 linearen ibilbidea aldatzeko, baina ez zen lortu. Eskaera bat da geldialdiak egitea erabiltzaileek eskatzen duten tokietan, ibilbidearen barrenean.

6.5. ESPAZIO JENDETSU ETA PARTEKATUAK

Kontuan hartzen badugu entzuteak eta entzuna izateak segurtasuna sortzen dutela, garrantzizkoa da ingurune jendetsuak sortzea, gune guztietan jendearen mugimendua ikusten bada, hobe. Lan honetan jenderik gabeko toki batzuk zerrendatu dira, industria-gunea eta parkinak bereziki, baita kale zehatz batzuk ere.

Lan-ildo gisa, pentsa genezake esparru horiek aldatzea autoak eta pertsonak espazioa partekatzeko, adin desberdinetako pertsonak erabiltzeko esparru atsegin bihurtu dadin. Esaterako, nahi badugu motorreko ibilgailuentzako bakarrik diren parkinak ez egotea, berriz diseina daitezke parkeak, eserlekuak, atsedenguneak eta zeharkako pasealekuak sartzeko. Aldi berean, beharrezkoa litzateke herriko aparkalekuak birpentsatzea eta beste toki batzuetan kokatzea.

Aldaketa hauetan pentsatzeko laguntza aurki dezakegu Punt 6en “Entornos habitables” izeneko lanean⁵.

6.6. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ETA GIZONEN ERANTZUKIZUNA

Beldurraren esperientzia partekatuari, bere forma ugarietan, eta bere esperientzia subjektiboan aurre egiteko, emakumeen ahalduntze prozesuak sustatzea azpimarratzen da neurri nagusi gisa segurtasuna indartzeko. Ahalduntze hitzaren esanahitzat hartzen dugu emakume bakoitzak edo emakume talde batek bizi prozesuak eskuratzea edo asmatu eta barneratzea, aurre egiteko berari eragiten dizkieten eta indarrean dauden zapalketa mota guztiei, hala nola, bazterketari,

[1] Entornos habitables - Col-lectiu Punt 6: <https://www.punt6.org/es/books/entornos-habitables/>

erasoari, autogutxiespenari, estutasunari, muturreko beldurrari, eta abarri. (Lagarde, 1996).

Proposamenetan ikusi dugun bezala, emakumeok beldur gutxiagoz eta segurtasun gehiagoz bizitzeko, ezinbesteko bidea da norberaren barreneko lana, gure gorputzean sartua dugun beldur sexuala desmuntatzen eta desikasten joateko. Norbanako eta taldekako ahalduntze prozesu beharrezko bat da esparruak irabazten joateko, eta Antsoingo esparru publikoez, festa giroez eta gauekoz aske eta osotasunez gozatzeko.

Kontrol sozialari begirako neurri gehiago eskatzeko joeraren aurrean, kamera gehiago edo poliziaren presentzia gehiago, esaterako, emakumeen ahalduntzea indartuko duten neurriei begira jar gaitezke, horrela gure autonomia eta askatasuna sustatuko ditugu. Horretarako, autodefensa feminista funtsezko tresna gisa ikusten dugu.

Aldi berean, ezinbestekoa ikusten da indarkeriaren erantzukizuna eta fokua gizonari bideratzea. Edalontzietarako estalkiak eramateko gomendioak, esaterako, emakumearen gainean ezartzen du erasotua ez izateko erantzukizuna, eta ikuspegi hori aldatu nahi da. Ezinbestekoa da gizonazkoei galdegitea, jokaera matxistak baztertu eta konplizitate matxistarekin buka dezaten. Horretarako bidezkoa da sensibilizazio-kanpainak edo tailerrak eta formazio-jardunaldiak abian jartzea. Komenigarria litzateke hori adin txikietatik hasita, sexu-hezkuntzaz eta berdintasunerako heziketaren bidez.

Nerea Barjolak bukatu berri duen ikerketa batean ondorioztatzen duenez: “Beharrezkoa da sensibilizazio- eta hezkuntza-kanpainak martxan jartzea, indarkeria sexualaren ardura erasotzaileei bideratzeko, eta ez erasoaren biktimei. Baina, halaber, berebiziko garrantzia du autodefensa feministako heziketa iraunkorra ezartzeak, autonomiaren kudeaketan sakontzeko, ariketa praktikoak indartzeko eta gizonazkoen babesaren eta segurtasunaren eskema hausteko sare bat osatuz eta zaintza feministaren metodologia indartuz.

Babes maskulinoa da indarkeria sexualen existentzia bermatzen duen funtsezko osagaia”⁶.

6.7. TALDE/SARE FEMINISTEN EDO EMAKUMEZKOEN BEHARRA, AHALDUNTZE KOLEKTIBOA ERRAZTEKO

Parte-hartze falta izan da prozesu honen ahulguneetako bat. Dirudienez, behinola talde feminista aktibo bat egon zen herrian, baina, gaur egun, ez dago talde feminista aktiborik herrian, interesgarria izan zitekeen horrelako baten parte-hartzea prozesu honetan.

Dirudienez, gaur egun ez dago ezein talde aktiborik ahalduntze kolektiboko estrategiak indartzeko sareak edo proposamenak antola dezakeenik, parte-hartzaileek proposatu zuten bezala. Ideia sortu da emakume taldeak antolatzeke mendira ateratzeko edo korrika egitera joateko, bai eta atsedenaldirako edo zaintzan eta lan-auzietan elkar launtzeko ere.

Bukatzeko, badira prozesu honetan burutu ezin izan ditugun esparruetako puntu kritiko batzuk aldaratzeko hainbat jardura. Horiek aurrera eraman daitezke elkarrekin emakumeen parte hartzearen bidez; horrela jokatzeko ahalduntze kolektiboa indartuko luke eta toki horiek berreskuratzea bideratuko luke.

- **Ideen lehiaketa:** hiriko esparruak, genero ikuspegitik, bizitzeko espazio bihurtzeko. Gauza bera proposa daitezke beste toki batuzetarako: iparreko erronda edo Ezkaba mendia, esaterako.
- **Hiriko horma-irudiak:** emakumeek egokituak edo margotuak puntu kritikotzat hartu diren puntuetan, toki horiek

[2] ¿La fiesta era esto? Estudio de las violencias sexuales en espacios de ocio nocturno sobre mujeres jóvenes en Bizkaia (2024).

atseginagoak egiteko eta, aldi berean, emakumeen ahalduntze mezuak emateko.

6.8. INDARKERIA MATXISTA GAUEKO AISIALDIAN ETA FESTA GIROETAN PREBENITZEKO KANPAINAK

Kontuan hartzen badugu beldurrak eta eraso baten biktima izateko probabilitateak gora egiten dutela festa giroetan, gaueko aisialdikoetan edo alkohol eta beste drogen kontsumo handiagoa dagoen tokietan, inportantea da kanpaina bereziak egitea data, ekitaldi eta espazio berezi horietarako, eta baliabide beharrezkoak martxan jarri emakumeek ere gaueko festez eta aisialdiez goza dezaten.

Dirudienez, Antsoaingo festetan lan bat egiten ari da aspaldi. Kanpaina eta protokolo bereziak daude, eta taberna eta txoznetan zabaltzen dituzte, eta puntu more bat ezartzen dute, besteak beste. Kanpaina hori Antsoaingo festa ekitaldi guztietara zabaltzea litzateke gure lan proposamena, eta urte osoan zehar, gero eta agente sozial gehiago inplikatu prebentziorako jarduerak eta beste ekimen balizko batzuk egiteko.

ONDORIOAK

Segurtasunaren fenomenoak konplexua da, eta esperientzia-mota anitzak biltzen ditu. Esperientzia hori espazioaren ezaugarriekin lotuta dago hainbat kasutan, eta, beste batzuetan, testuinguru sozial eta erlazionalarekin. Izan ere, segurtasun faltako sentazio indibiduala eta kolektiboa baldintzatuak daude bai arkitekturaren ezaugarriengatik, bai sozializazio prozesuengatik, eta horrek genero-egituretan duen biziraupenagatik gizon-emakume arteko botere harremanetan. Hemen arazo-puntuen ikuspegi zabal bat lortu da, esparru eta testuinguru anitzak barnean hartuta. Antsoain heri inklusiboago eta bizitzeko atseginago bihurtzeko ekimen integral bati begira, lau eremu hauetan eragitea proposatzen dugu.

Alde batetik, proposamen anitzak jaso dira ezaugarri fisikoengatik antzeman diren puntu kritikoei begira: argiztapena eta bere mantenua handitzea edota hobetzea, betiere jasangarritasun-irizpideak alde batera utzi gabe; zuhaitzak inaustea eta kontrolatzea; ispiluak paratzea; bideo bidezko zelatatzeaz ohartzeko afixak paratzea, nahiz faltsuak izan; N7 linearen ibilbidea aldatzea Antsoainen gehiago barneratzeko, eta bidaiariak eskatutako geldialdiak onartzea; hiritarrekin pedagogia egitea afixen bidez lekuak garbi utz ditzaten; eta jende gutxiko esparruak aldatu, ibilgailuen eta pertsonen arteko bizikidetzaren partekatzea, eta atseginak eta habitagarriak izan daitezten.

Beste aldetik, testuinguruari eta esparru batzuetan ematen diren harremanei dagokienez, honako proposamen hauek egin dira: emakume taldeak bultzatu mendira joateko; ahalduntze eta autodefentsa feminista tailerrak; maskulinitate tailerrak; norberaren kokapena ezagutzeko mugikorrekoko aplikazioak; protokoloa zabaltzea esparru publikoetako ekitaldi eta festa mota guztietara, eta ezagutzera eman afixen eta beste prebentzio euskarri batzuen bidez; urte osoan zehar heziketa ikastaro eta kanpainak egin tabernei sentsibilizatzeko eta kontzientzia sortzeko.

Emakumeon segurtasun faltaren eta beldurraren aurrean, batzuetan joera izaten da kanpoko babes neurriak eta gure gorputzak kontrolatzekoak proposatzea, edalontzien estalkiarena bezalakoak. Emagin taldeko kideon ustez, garrantzizkoa iruditzen zaigu neurriak proposatzea emakumeen askatasuna eta autonomia areagotzeko begira. Ahalduntze pertsonal eta kolektiboa sustatzeko estrategiak bultzatzea ikasi arazi zaigun babesgabatasun ustearekin bukatzeko eta nagusi den izu sexualaren kulturarekin akitzeko. Beste aldetik, festen inguruko neurriak edo kanpainak proposatzen ditugunean, esaterako, ezinbestekoa da gizonei begira jartzea haiek, gizon gisa, sortzen dutenaren gaineko erantzukizuna har dezaten, eta mezuak eta prebentzio neurriak haiei zuzentzeko, eta ez emakumeei.



www.emagin.eus
emagin@emagin.eus